

9.- II FEDER AUNDIA

Gizon au guztiak dauke gizon aunditzat. Esaterako Bismarck'ek, Hitler'ek edo Napoleon'ek. Ikusi dagigun nor eta nongoa zan eta zer egin eban. Guda buru lez da ospetsua baiña ez zan ori bere guraria.

Berlin'en jaio zan, 1712n. urtean. Orduan España ta Fratzte ziran aundiak, ez oster a II Feder'en Prusia. Au laterri txiki bat baiña ez zan.

Feder'ek ez eban nai erregetza, gitxiago gudari izan, bere mundua eresa edo musikea eta beste eder-bide batzuk ziran eta naiago eban frantzeraz berba egin doitxeraz baiña.

Amazortzi urtekoa zala Ingalandia'ra iges egin nai izan eban gaiñera etorkiozan eginbeurrak ez artzeko. Ez eban lortu.

1733n. urtean, erdi zorotzat eukan, bere aita beartuta, Isabel Kristina'gaz ezkondu zan eta etorpidedun printzea izatea onartu eban. Bere aita baretu zan eta bere lurralde batera bialdu eban. An ikasi eban edestia eta filosofia eta Voltaire'ren antzeko gizaki entzute aundikoakaz artu-emonak eta eskutitzak izan ebazan.

1744n. urtean aldatu zan bere bizitzea. Aita il jakon eta bera biurtu zan Prusia'ko errege. Gudarako trebetasuna erakutsi eban. Urrengo urteetan bere lurraldeak zabaltu ebazan. Inguruko agintari guztiak arrituta egozan, gudari lez, idazle lez. ereslari edo musiku lez eta politiku lez ain ona zalako.

Idazle lez, esaterako, bere idaz-lan guztiak 30 liburu dira.

"Zazpi urteko guda" izan zan beretzat azterketarik onena: Austria'gaz, Frantze'gaz, España'gaz, Rusia'gaz, Suedia'gaz eta Saxonia'gaz bat eginda egoana eban arerio. Zerbait lagundu eutson II Feder'eri Breña Aundiak, baiña dirua baiña ez. Estu aurkitu zan II Feder eta bere burua iltea be otu jakon, baiña ekintzaillea zan eta Rusia atzeratu zanean, bera izan zan irabazle. Tzar'ak atzera egin eban II Feder'eri eutson bildur eta itzaltasunagaitik.

Polonia banadu eben erdibana Rusia'k eta Prusia'k.

Sinistu- eziñekoa da zelan lortu eban guda guzti oneik egin, Prusia'ko lanai begiratu eta filosofi-lanak osotu ebazan.

Bera katolikua zan baiña arrituta begiratzen eban protestanteen diru-aureratzea, lana, alegiña... orrelan gizartea aurrera aterateko eta judatarrai be arrituta begiratzen eutsen.

Asko lagundu eutsen edertiari eta elertiari Gorroto eban alemanen izkuntza.

1786n. urteko dagonillaren 17n. egunean il zan.

Zelakoa zan gudaritza Prusia'n?

Indar aundia eukan laterrian, baiña II Feder'en menpean.

Gudarostea oso eginkorra zan eta ez beti erasokorra. Bear eban gudarostea, baiña ez iñoz diktadura sortzeko bide lez.

Egin eutson bere ikutua Prusia'k II Feder'egaz, Europa'ren edestiari!

OLAZAR'tar Martin'ek

URTEROKO BATZAR NAGUSIA

Martiaren 13n. egunean urteroko
Batzar Nagusia egingo dogu

Lenengo deia: 7 1/2'etan eta
Bigarren deia 8'00retan

GAIK:

Aurkezpena: Zuzendariak.
Urteko kontuak: Karmele Fernandez, diru-zaiñak
Urteko ekintzak: Zuzendariak
Batzordekide barriak, ba'legoz
Erreguak eta eskariak

ZUZENDARIAK

ASAMBLEA GENERAL ANUAL

El 13 de marzo celebrará la Asociación
EUSKERA ZALEAK su Asamblea General anual

Primera convocatoria: 7'30
Segunda convocatoria: 8'00

ORDEN DEL DIA:

Presentación: El Presidente
Cuentas de 2007: Karmele Fernandez, tesorera
Actividades del 2007: El Presidente
Nuevos miembros de la Junta si hubiere
Ruegos y preguntas

EL PRESIDENTE